



Esp.kodea: 2021KZUD0002

**Gaia:** DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA ETA  
DIRULAGUNTZA ESKAERA EGITEA.  
**Hasiera eguna:** 2021/02/18

## JAKINARAZPENA

Jakin dezazun, Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 25ean egindako bilkuran, Alkatetzak emandako eskurantzaren eskuordetzearen arabera, besteak beste, akordio hau hartu zuen:

### **“Trikitixa eskola: 2021eko dirulaguntza eskaera aurkeztea (2021KZUD0002)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Kultura eta Euskara Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Estibaliz Mendarozquetak, Arrasateko Trikitixa Eskolaren izenean aurkeztu du dirulaguntza eskaera elkartearen 2021eko jarduera finantzatzeko. Eskaerarekin batera dirulaguntza jaso ahal izateko beharrezkoak diren agiriak ere aurkeztu ditu.

2021eko aurrekontuan 9.000 euroko izendun dirulaguntza onartu zen Arrasateko Trikitixa eskolaren izenean. Dirulaguntza bide honen helburu nagusia izan da ahalbidetzea 2013tik aurrera Trikitixa eskola jarduera, eta mantentzea erregularizatuta bere ardurapeko langileen egoera fiskal eta laborala.


Gauzak horrela, Kultura eta Euskara Batzordeak akordio hau hartzea proposatu du

1. Trikitixa Eskolari 9.000 euroko dirulaguntza ematea. Laguntza horrela ordaindukoa da:

- a) Elkartek laguntza onartu eta epe laburrean agindutako diru kopuruaren %60a.
- b) Gainerako %40a 2022ko urtarrilaren 15 baino lehen dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu eta gero. Justifikazioa egin behar da dirulaguntzak zelan eman eta kudeatu ordenantzak 17. artikuluan jasotakoaren arabera eta 2021eko dirulaguntza deialdiak aurreikusiko duen moduetako baten.. Modu berezian azpimarratu nahi da dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa bat etorri behar dela laguntzaren justifikazioa egiteko agiriarekin. Hori dela eta, ez dira onartuko laguntzaren justifikazioa egiteko pertsona fisikoei egindako ordainketa agiriak legeak, eta Udalak onartuko duen dirulaguntza deialdiak, eskatzen dituen eredu eta prozeduretatik kanpo.

2.- Trikitixa eskolari 30 eguneko epea ematea, jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, Udalarari adierazteko agindutako dirulaguntza onartzen ote duen; epe horren barruan kontrakorik adierazi ezean, ulertuko da inplizituki onartzen duela. Elkartek laguntza onartzen duela adierazteko bidal dezake Kultura sailera mezu elektronikoko bat.”

<b>Kodea</b>	BB21/00461	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/mar./26	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAALBHH.E.wV55
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALBHHE.wV55">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALBHHE.wV55</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





**Esp.kodea:** 2021KZUD0002

**Gaia:** DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA ETA  
DIRULAGUNTZA ESKAERA EGITEA.  
**Hasiera eguna:** 2021/02/18

*Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Edozelan ere, nahi izanez gero, haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik, BERRAZTERTZE ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu; horretarako, HILABETEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita. Bestela, haren aurka, zuzenean ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkeztu dezakezu Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, Donostian; horretarako, BI HILEKO epea duzu, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita.*

*Hori guztia egin dezakezu urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114 c), 123 eta 124 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera, eta uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena, 8, 25, 46 artikuluetan eta horiekin bat datozenetan xedatutakoaren arabera.*

*Eta horretaz gainera, bidezkoztat jotzen baduzu, beste edozein egintza edo errekurtsu aurkeztu dezakezu.*

Idazkaria

M. ESTIBALIZ MENDAROKETA UGARTE, TRIKITIXA ESKOLA  
ARRASATE PASEALEKUA, 35 - 2. DR  
20500 ARRASATE/MONDRAGON

<b>Kodea</b>	BB21/00461	<b>Udala</b>	ARRASATE/MONDRAGON
<b>Data</b>	2021/mar./26	<b>CUDO</b>	000.0055.AAAALBHH.E.wV55
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALBHHE.wV55">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAALBHHE.wV55</a>		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

